



DOCENTIAZ PROGRAMA

UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazio programa

Fase esperimentaleko 6. deialdia

**DOCENTIAZ programan parte hartu duten
irakasleek programaren garapenaz duten iritzian
oinarritutako txostena**

2016ko azaroa

AURKIBIDEA

	Orria
1. Sarrera	5
2. Galdetegia erantzun duten irakasleek	6
3. Informazioaren analisisa	7
4. Ondorioak	8

ERANSKINA

1. eranskina: Lortutako erantzunak	9
------------------------------------	---

1. SARRERA

Irakasleen irakaskuntza jarduna ebaluatzeko UPV/EHUK egun duen erreminta dugu DOCENTIAZ, ANECAREN DOCENTIA programak ezarritako betebeharrak betetzen dituena.

DOCENTIAZ programa honek irakaskuntza-ikaskuntza kooperatibo eta dinamikoaren eredua du oinarri, ikaslea erdigune eta ardatz delarik.

Seigarren deialdi hau fase esperimentalean burutu da eta, horregatik, borondatezko tasunari eutsi dio, beharrezkoa baita ebaluazioaren osagai teknikoak behar bezala gehitzeko eta ebaluazio prozesu hau errazago egin dezakeen konfiantzazko giroa sortuko bada. unibertsitateko kideek programa ezagutu, zabaldu eta baliozta dezaten, Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak (IEZ) argitara eman zuen aurtengo deialdi hau zerbitzuaren web gunean eta, deialdiarekin batera, eskuliburua eta lehenagoko deialdietako helmuga-ebaluazioaren emaitzak eta ANECA-UNIBASQEK emandako txostenak. Halaber, jakinaren ganean jarri ziren ikastegietako dekanok eta zuzendariak eta Gobernu Kontseilua.

DOCENTIAZ programan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea 2016ko otsailaren 15an hasi eta martxoaren 15an amaitu zen, biak barne.

Autotxostena tresna baliagarria da DOCENTIAZ programan ebaluazio hezigarria egiteko. Bere azken helburua hausnarketa sustatzea da, irakasleen lana zailtzen duten irakaskuntzako alderdiak hautemateko.

Autotxostena ondorengo dimentsioetan dago egituratuta:

- 0. DIMENTSIOA: Irakaskuntza zama eta haren faktore zuzentzaileak: talde bakoitzeko ikasle kopurua, eskolak zenbat ikastegitan ematen diren, euskaraz ematen diren eskolak, irakasgai kopurua eta irakasle berria izatea (ez iraunkorra).
- 1. DIMENTSIOA: Irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena.
- 2. DIMENTSIOA: Emaitzak (Arrakasta tasak eta irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestak).
- 3. DIMENTSIOA: Irakasleen garapen profesionala: Irakats lidergoa., Zuzendutako edo gainbegiratutako lan akademikoak, Prestakuntza, Irakaskuntzarekin lotutako berrikuntza eta argitalpenak Goi Hezkuntzan, eta Hedapena.

Irakasleei eskatutako datu gehienak automatikoki deskargatzen dira aplikazio informatikora erakundearen datu-baseetatik: 0. dimentsioari dagozkion datuak, arrakasta tasak, irakasleek eskainitako irakaskuntzari buruzko ikasleen iritzi inkestako emaitzak, zuzendutako edo gainbegiratutako lanak, eta, baldin eta UPV/EHUKo datu basean jasota badaude, emandako edo jasotako ikastaroak edo mintegiak, irakaskuntza berrikuntzarako proiektuetan izandako parte-hartzea, etab.

Txosten honetan jaso da DOCENTIAZ programan borondatez parte hartu duten irakasleen iritzia, programa honen seigarren deialdian. Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak (IEZ)

galdetegi bat igorri zuen 2016ko uztailaren 20an, hau betetzeko epea irailaren 12an amaitzen zela. Irakasleek telematikoki erantzun zuten eta modu anonimoan encuestafácil plataformaren bidez. Esan behar da galdetegia bidali zela Irakaslana Ebaluatzeako Unibertsitateko Batzordeak (IEUB) ebaluazioaren inguruan egindako azken txostena jaso ostean.

Galdera sortak Likert erako neurketa eskala bat du, atal irekiekin eta lau bloke tematikotan banatzen diren 12 galderak ditu:

- 1) Testuingurua zehazteko itaunak (1-2 galderak)
- 2) DOCENTIAZ programaren funtsezko edukiari buruzko itaunak (3-7 galderak)
- 3) DOCENTIAZ programara aurkezteko norberaren motibazioari buruzko itaunak (8-9 galderak)
- 4) Seigarren deialdi honekiko asebetetze orokorrari buruzko itaunak (10-12 galderak)

2. GALDETEGIA ERANTZUN DUTEN IRAKASLEAK


Guztira 414 irakasleri egin zitzairen galdera-sorta betetzeko gonbita; horietatik 233k bete zuten. Azken finean, populazioaren %56k erantzun zieten galderari.

1. taulak, 1. irudiarekin batera, hurrenez hurren, galdetegiaren 1 eta 2. galderari dagozkien emaitzak aurkezten dira. Lehenengoan, seigarren deialdi honetan parte hartu zuten UPV/EHUko ikastegi bakoitzean lortutako erantzun kopurua ikus daiteke; bigarrean, ordea, irakasleei dagokien zientzia arloaren arabera erantzun kopurua.

1. taula. Ikastegien arabera emaitzak

Farmazia Fakultatea	13	%5,60
Letren Fakultatea	11	%4,74
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	6	%2,58
Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola	8	%3,45
Kimika Zientzien Fakultatea	2	%0,86
Zuzenbide Fakultatea	4	%1,72
Informatika Fakultatea	8	%3,45
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	5	%2,15
Psikologia Fakultatea	7	%3,02
Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	1	%0,43
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	7	%3,02
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	28	%12,07
Arte Ederren Fakultatea	4	%1,72
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	44	%18,97
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	7	%3,02
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	19	%8,19
Bilboko Ingeniaritza Eskola	40	%17,24
Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola	6	%2,59
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	12	%5,17

1. Irudia. Zientzia arloen araberrako emaitzak



3. INFORMAZIOAREN ANALISIA

Aurreko deialdietan ikusitako joerari jarraituz, parte-hartzea deialdiak iragan ahala gorantz joaten da progresiboki.

Emaitzen analisiari helduta, DOCENTIAZ programa honela ikusten dute seigarren deialdi honetako irakasleek:

- Hezigarria (% 78 dago gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados)
- Beharrezkoa (% 83 dago gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados)
- Egokia (%86 dago gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados)

Autoxostena egiteko zailtasuneei dagozkionez, irakaslek azpimarratzen dituzte: aplikazio informatikoaren zurruntasuna kasu gehienetan formatu itxiak direla eta, dokumentazioa eta ebidentziak biltzeko arazoak, ebaluatzeako irakasgaia aukeratzea, nola egin irakaslearen gida, txostena egiteko eskatutako denbora gehiegi izatea.

Ebaluaziorako protokoloari oso lagungarri deritzote autoxostena egiteko orduan.

Irakasleek seigarren deialdi honetan borondatez parte hartzeko izan dituzten arazoiez hitz eginez, honako hauek lirateke:

- % 73 k uste du DOCENTIAZ programak balio duela irakaskuntza jardueran hobetu beharreko alderdiak.
- % 93k uste du eginbeharretako bat dela irakaslan ebaluatzea, ikerketa ebaluatzen zaion bezala.
- % 89k uste du balioko duela bere irakaslanaren aitortpena lortzeko.

- %74k azpimarratzen du ikastegi, saile edo beste unibertsitateko erakunde batzuen onerako egin dutela (ikastegiko kalitate erakuslea, dekanotzaren proposamena, eta abar)
- %86k azpimarratzen du irakasleen akreditazioaren prozesuetan daukadan ondorioa, oposaketetan, lan poltsetan, ANECA, UNIBASQ, JAP deialdietan, eta abar.

Azkenik, nabarmentzekoa da irakasleen % 92 asebetarik dagoela DOCENTIAZ programaren seigarren deialdian parte hartu izanagatik (gutxi gorabehera ados: % 17, nahiko ados: % 30 eta erabat ados: %45). Eta, aldi berean, %91 gogobetarik dago lorturiko emaitzekin.

4. ONDORIOAK

UPV/EHUren Docentiaz programa modu jarraituan ezarri da sei deialdi esperimentaletan zehar, erreferentziazko programa bilakatu da UPV/EHUko irakasleentzat, irakaskuntza lana ebaluatzeko erreminta gisa, ikasleak gune eta ardatz dituen ikaskuntza-irakaskuntzarako eredu kooperatibo eta dinamikoa oinarri hartuta.

Bere aldetik, seigarren deialdi honetan parte hartu duten irakasleei aplikatutako inkestak honako datu hauek eman ditu: gehiengo bat asebetarik dago parte hartu izanagatik, irakasleek DOCENTIAZ programa hezigarri, beharrezko eta egokia dela pentsatzen dute. Ados agertzen dira, era berean, hiru informazio iturri erabiltzearekin: irakasleak, ikasleak eta ikastegietako kalitate batzordeak.

Seigarren deialdi honetan, ebaluazio protokoloak izugarri lagundu du autotxostena betetzeko eginkizunean, programaren adierazle bakoitzari emandako puntuazioak alde aurretik jakinda, halere hurrengo deialdietan areago lan egingo da protokoloaren edukia hobetze aldera.

Irakasleek programa honetan borondatez parte hartzeko dituzten arazoiek norberaren aitortza eta irakaskuntza jarduna hobetzea dute helburu.


Jasotako iritziak aintzat hartuta, esan daiteke irakasle gehienak pozik agertzen direla deialdi honetan parte hartzearekin eta nahiko ados lortutako emaitzekin.

1. eranskina: LORTUTAKO ERANTZUNAK

Galdera bakoitzeko grafiko bat dago; bertan, eskalako balio bakoitzeko erantzun kopurua ikus daiteke. Horrez gain, batezbestekoa, konfiantza tartea, laginaren tamaina eta, amaitzeko, desbiderapen tipikoa eta errore estandarra daude irudikatuta. "Ondorio nagusiak" atalean, aukeratutako erantzunen portzentajeak ikus daitezke.

Horrez gain, atal irekia duten galderetan, bildutako erantzun multzoaren laburpen bat agertzen da. Adierazpen bakoitzaren ondoan horren agerpen maiztasuna dago adierazita, parentesi artean. Azterketa kualitatiboan eta ondorengo kategorizazioan, gutxienez bi aldiz agertzen diren iritziak hartu ditugu kontuan.

3. itema.- DOCENTIAZ programa:



Azterketa teknikoa - Populazioa: 155

Hezigarria da, irakasleentzat gidari izan baitaiteke irakaslanara ondo egiteko		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,351	%64" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Gutxi gorabehera ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%7":
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	
Laginaren tamaina	211	
Desbiderapen tipikoa	1,109	

Beharrezkoa da, irakaslanari garrantzia ematen baitio		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,648	%63" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Erabat ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%6":
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	
Laginaren tamaina	210	
Desbiderapen tipikoa	1,145	

Egokia da akreditazio akademikarako		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,780	%71" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Erabat ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%5":
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 4]	
Laginaren tamaina	209	
Desbiderapen tipikoa	1,065	


4. itema.- Adierazi autotxostena egitean izan dituzun hiru zailtasun

- **Aplikazio informatikoa:** motela, euskarri informatiko gogaikarria, azalpenak emateko leku eskasa, ez dago aukerarik imprimakiak zirriborro gisa deskargatzeko (43).
- **Dokumentazio pilaketa:** zalantzak ebidentziak biltzerakoan (33).
- **Denbora:** denbora gutxi azken txostena egin ahal izateko (21).
- **DOCENTIAZ programaren ulermen orokorra:** terminologia (16), ebaluazio protokoloaren formulak ulertzeko zailtasunak (16).
- **Autotxostena:** irakasgaiaren hautaketa, hedadura, erredakzioa, prestaketa...(19)
- **Merezimenduak:** irakaskuntza merezimenduak kategoria egokietan sailkatzeko zailtasuna (18).
- **Ikasleen gida:** gidaren hizkuntza aukeratzeko zalantzak, nahasketa irakaskuntza gida eta irakaslearen gida artean (17).
- **Ez da egon zailtasun handirik** (9).
- **Hizkuntza:** terminologia oso espezifikoa, teknizismoak, ikasgeletan irakaskuntzaren esperientzia adierazteko zailtasuna (5)
- **Deialdia egiteko aukeratutako momentua** (5)
- **Programaren ezjakintasun** (3).
- **0. Dimensioaren ulermena eta frogaketa** (2).

5. itema.- Adierazi zenbat denbora eman dituzun autotxostena egiten (ordutan)


<ul style="list-style-type: none"> ✓ 5 ordu baino gutxiago (34) ✓ 5-9 ordu (27) ✓ 10-14 ordu (33) ✓ 15-19 ordu (26) ✓ 20-24 ordu (29) ✓ 25-29 ordu (27) 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ 30-35 ordu (9) ✓ 40 ordu (4) ✓ 50 ordu (3) ✓ 60 ordu (5) ✓ 100 ordu (1) ✓ 120 ordu (1)
Batezbestekoa: 16 ordu	

6. itema - Ebaluaziorako protokoloa lagungarria izan da autotxostena egiteko




Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,820	%72" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Erabat ados nago
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 4]	
Laginaren tamaina	200	Gutxien aukeratutako erantzuna "%3":
Desbiderapen tipikoa	0,981	

7. itema.- Protokoloan emandako informazioagatik, programaren ebaluazioa gardena da:



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,625	%73" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Gutxi gorabehera ados nago
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	
Laginaren tamaina	200	Gutxien aukeratutako erantzuna "%5":
Desbiderapen tipikoa	0,984	

8. itema.- DOCENTIAZ programan parte hartu dut, zeren:



Azterketa teknikoa - Populazioa: 202

Uste baitut lagundu egingo didala ikusten zer hobetu dezakedan nire irakasle lanean		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,264	%56" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Gutxi gorabehera ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%10":
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 3]	
Laginaren tamaina	201	
Desbiderapen tipikoa	1,210	

Uste baitut nire eginbeharretako bat dela irakaslan ebaluatzea, ikerketa ebaluatzen zaidan bezala		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,906	%74" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Erabat ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%3":
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 4]	
Laginaren tamaina	202	
Desbiderapen tipikoa	0,970	

Uste baitut balioko duela nire irakaslan aintzat hartzeko		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,843	%69" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Erabat ados nago La opción menos elegida representa el "%4":
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 4]	
Laginaren tamaina	198	
Desbiderapen tipikoa	1,043	


Ikastegi, sail eta beste unibertsitate-erakundeen onerako (ikastegiko kalitatearen adierazlea, dekanotzaren proposamena, etab.)		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,382	%55" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Erabat ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%11":
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	
Laginaren tamaina	199	
Desbiderapen tipikoa	1,269	

Irakaslearen akreditazio prozesuetan eragina, oposizioak, lan-poltsak, ANECA, UNIBASQ, JAP, EUSKOTRAMOAK, etab.)		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3,828	%68" hau aukeratu zuten: Nahiko ados nago Erabat ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%4":
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 4]	
Laginaren tamaina	198	
Desbiderapen tipikoa	1,118	

9. itema.- Adierazi izan duzun beste arrazoiren bat **DOCENTIAZ** programan parte hartzeko


- Ikastegiak, sailak edo bestelako unibertsitate erakundeek adierazitako interesarengatik (ikastegiaren kalitatearen adierazlea, dekanotzaren proposamena...) (7)
- Ondorioak Irakasleen akreditazio prozesuetan, oposizioetan, lan poltsan, ANECA eta UNIBASQ deialdietan, osagarrietan(13).
- Irakaskuntza hobetzea, irakaslanaren aitortza, metodologia aktiboen justifikazioa...(4)
- Beharra izango da, programa ezartzen bada (2)
- HBP etan parte hartzea (4).
- Formakuntza Ikastaroetan ikasitakoa eta aurreko deialdietan aurkeztu eta gero egindako aldaketak balioztatzea (6).
- Nire irakaslanaren kanpoko ebaluazio obtetiboa edukitzea (6).
- Programa ezagutzeko gogorik (1).
- Beste batzuk: garaia egokia izatea, Erakundearekin komposioa, nire irakaslan antolatze aitzakia, irakasleen lana aldarrikatzea (5)

10. itema.- Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuko (IEZ) langileek behar bezala erantzun diete egindako galderei




Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4,218	%81" hau aukeratu zuten: Erabat ados nago Nahiko ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%2":
Konfiantza tarte (95%)	[4 - 4]	
Laginaren tamaina	174	
Desbiderapen tipikoa	0,955	

11. itema.- Pozik nago DOCENTIAZ programaren seigarren deialdian parte hartu dudalako



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4,060	"%75" hau aukeratu zuten: Erabat ados nago Nahiko ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%3":
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 4]	
Laginaren tamaina	200	
Desbiderapen tipikoa	1,110	

12. itema.- Pozik nago DOCENTIAZ programaren seigarren deialdian lortutako emaitzekin



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4,152	"%77" hau aukeratu zuten: Erabat ados nago Nahiko ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%3":
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 4]	
Laginaren tamaina	197	
Desbiderapen tipikoa	1,068	

Barra grafiko honek galdera bakoitzarekin bildutako **emaitza multzoaren portzentaje banaketa** barne hartzen du:

